

Hitzontzi

Literatura sorkuntza

YOLANDA ARRIETA



Belén Lucas

Aste beteko kontuak

1. ASTELEHENA: Jope! Babarrunak...!

—Ama! Bihar zer dago bazkaltzeko? galdetu diot amari, lotara bidean.

—Bihar... —amak jangelako paperean begiratu du— Bihar, astelehena: babarrun gorriak, albondigak barazkiekin eta budina.

Sukaldean daukagu jangelako papera. Amak arropak eskegitzeko pintza batekin jarri du egutegitik zintzilika. Ondo ikusteko moduan.

Jangelako papera jangelan ematen digute. Baina ez egunero, e? Hiru hilabetetik behin ematen digute. Handi-handia da eta nahiko polita, marrazki eta guzti. Amak esaten dit kaloriak, proteinak eta karbono hidratoak datozela bertan eta oso ondo dagoela. Nik ez dakit zer diren kalo-

riak, proteinak eta karbono hidratoak. Nik bakarrik dakit bihar astelehena dela eta babarrunak ditugula jangelan.

Jope! Babarrunak...!

2. ASTEARTEA: Frakak gaur ere?

Ama, goizean goiz, ilunetan joaten da lanera. Aulki gainean uzten dit arropa, gero, esnatu eta aitak gosaria prestatu bitartean, nik bakar-bakarrik janzteko.

Gaur asteartea da. Asteartea ez da jaieguna. Asteartea asteguna da, eta asteguna denez, eskolara joateko eguna. Aulkian, forru polarra, buffa eta frakak.

—Frakak gaur ere? —galdetu diot aitari.

↪ Hitzontzi ↪

—Asteburuan jantziko duzu soinekoa. Ero-soagoak dira frakak, lanerako.

Bai, soinketa egiteko, adibidez, frakak erosoagoak dira, baina soinekoekin bueltaka-bueltaka ibil naiteke, buelta bakoitzean soineko-barrena hegan jarrita.

Handia naizenean, amatxo bezala joango naiz lanera, goizean goiz, oraindik ilun dagoenean. Baina nik ez dut frakarik jantziko, berak bezala; nik gonak jantziko ditut, astegunetan ere hegan egiteko, asteburuetan bezala.

3. ASTEAZKENA: Noiz etorriko da ipuin kontalaria?

Eskolatik irten eta bokadiloa lau kopautan irentsi dut. Platanoa, hirutan. Eta jogurta, berriz, trago bakarrean. Prest egon behar da ipuin kontalaria datorrenerako; prest, eta, jakina, ilaran.

—Noiz etorriko da ipuin kontalaria? —galde-tu dugu txikiok, ilara bukaeratik, erlojua irakurri ezinik.

—Noiz etorriko da ipuin kontalaria? —galde-tu dute ertainek, ilara erditik, geldi egon ezinik.

—Noiz etorriko da ipuin kontalaria? —galde-tu dute handiek, ilara hasieratik, atea oztopatu nahirik.

Seiak jo eta iritsi da ipuin kontalaria. Bere atzetik sartu gara, txiki eta ertainok, denok tropelean.

Handiak leihotik zintzilik barrurantz begira geratu dira, kanpoan.

Ez omen da guztientzat lekurik, Liburutegian.

4. OSTEGUNA: Negarti deitu didate beste gelakoek!

Jolastorduan izan da. Futbolean ari ginen, bi geletakook, eta, baloia iritsi zait hanketara. Korrika hasi naiz, baloiari ostiko txikiak emanez, eta korrika noala, baloiarekin estropozo egin eta plausta!, ez naiz lurrera erori ba! Belaunak odole-

tan, berriz jaiki eta baloia berreskuratzen ahalegindu naiz. Alferrik. Beste gelakoek hartu eta euren ateraino eraman dute: Beraientzat gola.

Gero, eskolatik irten eta negarrari eutsi ezinik igo naiz autobusera.

—Negarti! —deitu didate, orduan, beste gelakoek, leihatila barrenetik mihia aterata.

Zazpiak jota esnatu naiz aitaren altzoan.

Logura eman dit negargurak.

5. OSTIRALA: Ez dut etxera joan nahi!

Mantalaren lehen botoia saman lotu eta mahukak jantzi gabe, superman bagina legez jolastu dugu arratsaldean. Plaza bete-beterik zegoen. Ostiraletan goizean goiz lanera joaten diren aita eta amak ere, guztiak agertzen dira plazara. Erosketa poltsak lurrean utzi eta kontu-kontari aritzen dira, pintxoak jan bitartean. Ardoa edo muztioa ere hartzen dute. Guri kakahueteak edo patata frijituak erosten dizkigute. Umeok haserretzen ez bagara —eta ez gara haserretzen— kalean egoten gara gaua iritsi arte. Gaur litxarre-rien ordeztortilla ogitarteko bana eman digute. Nire lagunak eta ni, laurok, mahai batean eseri eta txintxo-txintxo jan ditugu ogitartekook. Ilargi handi-handia ageri zen zeruan eta haize epela zebilen kalean. Amak esan dit *ilargi bete* deitzen zaiola ilargi handiari, eta *hego haize*, haize epelari. Ogitartekoa jan eta, berriz ere, korrika ibili gara, ilargipean, kapa dantzan jarriz, hego haizea lagun hartuta.

Bederatzi kanpai jo ditu kanpandorreko erlojuak.

—Ez dut etxera joan nahi! —oihu egin diet aitari eta amari.

Amak lagunak agurtu eta erosketa poltsak hartu ditu eskuetan. Aitak bere sorbaldetara igo nau, salto bakar batean.

Superman erraldoia zirudien gure itzalak, etxera bidean.

↪ Hitzontzi ↪

6. LARUNBATA: Non daude nire lagunak?

Goizeko hamaikak: Parkea hutsik, kaleak hutsik eta plaza hutsik.

—Non daude nire lagunak?

Eguerdiko ordu bata: Kaleak hutsik, plaza hutsik eta parkea hutsik.

—Non daude nire lagunak?

Arratsaldeko laurak: Plaza hutsik, parkea hutsik eta kaleak hutsik.

—Non daude nire lagunak?

Larunbatak ez dira nire lagunak lagunak.

7. IGANDEA: Amamaren etxera goaz!

Gaur igandea denez, amamaren etxera goaz bazkaltzera. Ez gara igandero joaten, ez; baina igandea izaten da, beti, joaten garenean.

Amamaren etxean ez dut babarrunik jango.

Ez. Amamak neure gustuko janaria jartzen du bere etxera noanean: zopa, kroketak eta oilaskoa. Amak frakak barik, soineko laranja eta marra-dun leotardo koloretsuak jantziko dizkit, eta bazkaldu ondoren, amamaren koarto iluneko armairuko arropak hartu eta mozorrotu egingo naiz. Agian, ipuin kontalariari entzundako ipuina antzetzuko dut. Baloiren batekin estropozo egin eta lurrera erortzen banaiz ere, ez dut negarrrik egingo, amamaren etxean ez dudalako inoiz ere negargarrik eta logurarrik izaten. Neure lehengusu-lehengusinekin jolastuko dut, kalean, plazan edo parkean lagunik ez egon arren.

Bai, gaur igandea denez, amamaren etxera goaz bazkaltzera, ez garelako igandero joaten, baina igandea izaten delako, beti, joaten garenean.

Igandea, jai eguna, asteko zazpigarren eguna.



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.
Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria: Posta-kodea:

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (2.000 pza)
Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:
3035 0242 68 242 0 00247 1
eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.
Galtzagorri elkartea. Artzain Onaren plaza, 15-1. ezk. 20015 Donostia